

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

**Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko maiatzaren 8an hartutako erabakia-
ren laburpena: 2026-2027an Gazte Informatzaileen Sarea Programa bideratzeko diru-laguntzak
emateko deialdia**

BDNS(Identif.): 913841.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazio-nalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convo-catoria/913841>).

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke:

Lehena. Onuradunak

Gazte Informatzaileen Sarea izeneko programa hau Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH), Oinarrizko Lanbide Heziketa, Batxilergoa, Erdi mailako berariazko Lanbide Heziketa eta Goi mailako Lanbide Heziketa, 2026-2027 ikasturtean eskainiko dituzten Gasteizko ikastetxeei zuzen-duta dago.

Bigarrena. Helburua

Gazte Informatzaileen Sarea kudeatu eta dinamizatzeko diru hornidurak emateko modua arautzen da deialdi honetan. Eta deialdiaren xedea, hauxe da: gazteei beren garapen pertso-nalerako baliagarri gerta dakiekeen informazioa eskuratzeko modua eskaintzea, eta informazio horren bilaketan eta zabalkuntzan parte hartzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko maiatzaren 8an egindako bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 11.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

2026ko urriaren 2 arte.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 8a

Alkatetzaren, Udal Harremanen eta Berdintasun Saileko zuzendaria
ARACELI DE LA HORRA GUTIERREZ